



IRALE

AURKEZPEN TXOSTENA

**Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionario, irakasle finko eta
Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoentzat**

Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoentzat.

2014ko udarako eta 2014-2015 ikasturterako programa

Gasteiz, 2014ko martxo

EUSKARA ZERBITZUA



HITZAURREA

Aurreko urteetan bezala Aurkezpen Txostena prestatu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, IRALE programaren berri emateko. 2014ko uda eta 2014-2015 ikasturtea biltzen ditu esku artean duzun txosten honek. Berak eguneratzen, osatzen eta zehazten ditu IRALE programaren urteroko jarduera-arauak.

Aurkezpen Txosten berriak hainbat aldaketa dakar, azal eta mami. Azaleko kontuei dagokienez, gogoan izatekoak dira:

- **2014ko martxoaren 31n hasten** da eskabidea egiteko epea, eta **apirilaren 11n** (egun biak barne) **amaitzen**.
- **Izen-ematea on-line** bidez egingo da **nagusiki**. Konkretuki, **irakasle.net** bidez.
- Aparteko idazkia iritsi(ko) zaie egunotan EAEko ikastetxe guztiei (bertako zuzendaritzei) eta ahalik eta irakasle gehienei, deialdi honen berri emanez. Han zehaztu(ko) zaie, behar den konkretioz, izen-ematea **on-line** nola egin.
- Honegatik edo hargatik **on-line** bidea erabili **ezin duenak Hezkuntza Ordezkaritzara jo beza**, bertako Euskara Atalera, eskabidea eskuz egitera.

Aurten, honako beritasun hauek erantsi dira:

- R400 ikastaroak hiruhileko osoko iraupena izango du.
- Eibarren ere, hiriburuetan bezala, R600 aukera izango da.
- Adina kontuan hartuko da irakastordu barneko ikastaroetan.
- Udako H, I, F eta Q ikastaroen aplikazioa irailera mugatu da, benetako eskabideen bilakaera kontuan hartuz.

IRALE programaren ekitaldi berri honetan parte hartzera gonbidatzen zaitut. Gogoan izan IRALEn parte hartzeko bidea, aurkezpen-txosten hau barne, Interneteko helbide honetan duzula eskura: <<www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>>.

Besterik ez gaurkoz. Ikasbide emankorra desio dizut, begirunez eta atseginez.

Gasteizen, 2014ko martxoaren 24an

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza sailburuordea



AURKIBIDEA

1.	SARRERAKO OHARRA	4
2.	EGUTEGIA	5
3.	IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK	7
3.1	HE1, HE2 eta HLEA eskuratzeko ikastaro trinkoak	8
3.1.1	U ikastaroak	8
3.1.2	Irakaspraktikak	10
3.1.3	3000, 4000 eta 5000 ikastaroak	11
3.1.4	Adinaren araberako sarbide-baldintzak	11
3.1.5	Z ikastaroak	13
3.1.6	Sarrera-azterketa	14
3.2	R ikastaroak	15
3.2.1	R300	16
3.2.2	R400	17
3.2.3	R500	19
3.2.4	R600	20
3.2.5	R700	21
4.	IRAKASTORDUZ KANPOKO IKASTAROAK	22
4.1	HE1, HLEA, HE2, EGA edo hizkuntza-agiri baliokide batera arteko ikastaroak	22
4.1.1	3300, 4300 eta 5300 ikastaroak	23
4.1.2	N ikastaroak	24
4.2	H, F, I o Q ikastaroak	25
5.	IKASTAROETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA JARDUNBIDEA	27
5.1	Ohar orokorrak	27
5.2	Irakastordu barneko ikastaroetarako oharrak	29
5.3	Irakastorduz kanpoko ikastaroetarako oharrak	30
6.	OHAR JAKINGARRIAK	31
6.1	Eskualde-kodea nola aukeratu	31
6.2	AMI (Aprobetxamendu Mailaren Ikurra)	34
6.3	Baja-aldia luzea izanik, txanda ezabatzeko aukera	35
6.4	Beste lanbide batzuetako parte-hartzea	36
7.	HELBIDEAK ETA TELEFONOAK	37



1. SARRERAKO OHARRA

Deialdi honetan arautzen da IRALE programaren 2014-2015 ikasturtea. Kidego bakoitzari dagozkion ikastaroak honako hauek dira:

- a) Irakastordu barneko ikastaroak, irakasle funtzionario nahiz finkoentzat: U2, U3, Z, 3000, 4000, 5000 eta R ikastaroak (R300, R400, R500, R600 eta R700).
- b) Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoentzat: U2, U3, 3000, 4000, 5000 eta R300 egin dezakete.
- c) Irakastorduz kanpoko eta udako ikastaroak, irakasle eta hezitzaile guztientzat (funtzionario nahiz finkoentzat): A, E, 3300, 4300, 5300, N, F, H, I eta Q ikastaroak.



2. EGUTEGIA

IRAKASTORDU BARNEKOAK

ZER	NOIZ
1. . Eskabidea egiteko epea	2014/03/31-2014/04/11 (egun biak barne)
2. R400erako egitasmo-txostena aurkezteko azken eguna	2014/05/17
3. Onartuen behin-behineko zerrendak, Ordezkaritzan eta web-orrian	2014/06/20
4. Erreklamazioak aurkezteko eta uko egiteko epea	2014/06/20–2014/06/25 (egun biak barne)
5. Onartuen behin betiko zerrendak, Ordezkaritzan eta web-orrian	2014/06/30
6. Liberatu ez direnek, azalpen-eskutitza irakasle.net-en eskuragarri	2014/08/29tik aurrera

SARRERA-AZTERKETA EGIN BEHAR DUTENENTZAKO EGUTEGIA

ZER	NOIZ
1. Sarrera-azterketa, U2 egiteko	
a) onartuen zerrenda	2014/05/09
b) onartuak izan ez direnek erreklamatzeko epea	2014/05/09tik 13ra
c) sarrera-azterketa egitea	2014/05/15
d) azterketaren emaitzak, Ordezkaritzako iragarki-taulan eta web-orrian	2014/05/21
e) azterketa-emaitza erreklamatzeko epea	2014/05/21etik 23ra
2. Sarrera-azterketa, 3000 edo 5000 egiteko	
a) onartuen zerrenda	2014/09/12
b) onartuak izan ez direnek erreklamatzeko epea	2014/09/12tik 16ra
c) sarrera-azterketa egitea	2014/09/18
d) azterketaren emaitzak, Ordezkaritzako iragarki-taulan eta web-orrian	2014/09/26
e) azterketa-emaitza erreklamatzeko epea	2014/09/26tik 2014/09/30era

**IRAKASTORDUZ KANPOKOAK**

ZER	NOIZ
1. Eskabidea egiteko epea	2014/03/31-2014/04/11 (egun biak barne)
2. Udako eta irakastorduz kanpoko ikastaroetarako onartuen zerrendak Ordezkaritzan eta web-orrian argitaratzeko eguna	2014/05/23
3. Udako eta irakastorduz kanpoko ikastaroetarako onartuak izan ez direnek erreklamazioa egiteko epea	2014/05/23–2014/05/30 (egun biak barne)
4. Udako ikastaroetarako matrikula-fitxa irakasle.net-en eskuragarri	2014/06/15etik aurrera
5. Irakastorduz kanpoko ikastaroetarako matrikula-fitxa irakasle.net-en eskuragarri	2014/08/29tik aurrera



3. IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK

IRALEk ikastaro mota hauek eskaintzen ditu oro har. Aurrerago zehazten da zer ikastaro mota eska dezakeen irakasle edo langile talde bakoitzak.

HE1, HE2 eta HLEA eskuratzeko ikastaro trinkoak				
Ikastaro mota	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>U2</u>	HE1 lortzeko urte osoko goi-ikastaroa	2014/09/04tik 2015/06/05era	Goizez (5 ordu)	850
<u>U3</u>	HE2 lortzeko urte osoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroa	2014/09/04tik 2015/06/05era	Goizez (5 ordu)	850
<u>3000</u>	HE1 lortzeko urte erdiko azken ikastaroa	2015/01/07tik 2015/06/05era	Goizez (5 ordu)	475
<u>4000</u>	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa	2015/01/07tik 2015/06/05era	Goizez (5 ordu)	475
<u>5000</u>	HE2 lortzeko urte erdiko azken euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroa	2015/01/07tik 2015/06/05era	Goizez (5 ordu)	475
<u>Z</u>	HE1 edo HE2 eskuratzeko liberazio partzialeko ikastaroa (musika-kontserbatorioetako irakasleentzat)	2014/09/04tik 2015/06/05era	Astean 12,5 ordu inguru	425

Oharra:

HE1erako eta HE2rako liberazio-aukerak agortuak dituenak irakastorduz kanpora presta ditzake HE-en azterketak.

R ikastaroak				
Ikastaro mota	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>R300</u>	Irakasgaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna sendotzeko ikastaroa	1. txanda: 2014/09/04tik 2014/12/19ra 2. txanda: 2015/01/07tik 2015/03/27ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R400</u>	Ikasmaterialak euskaraz prestatzeko ikastaro praktikoa	2014/09/04tik 2014/12/19ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R500</u>	Ahozko komunikazioa lantzeko ikastaroa	2015/01/07tik 2015/02/10era	Goizez (5 ordu)	125
<u>R600</u>	Curriculumaren euskal dimentsioa: euskal kulturaren inguruko ikastaroa	2015/02/09tik 2015/03/27ra	Goizez (5 ordu)	175
<u>R700</u>	Ikastetxeetan hizkuntza-gaitasuna garatzeko ikastaroa	2014/09/04tik 2015/10/10era	Goizez (5 ordu)	125

Ohar orokorrak:

Tauletan adierazitako eskola-orduak gutxi gorabeherakoak dira.

Ikastaro horietan guztietan parte hartzeko, irakasleen ordezkotzak bermatuta egon behar du.



3.1 HE1, HE2 ETA HLEA ESKURATZEKO IKASTARO TRINKOAK

3.1.1 U ikastaroak: HE1, HE2 edo HLEA lortzeko urte osoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroak

NORENTZAT	<ul style="list-style-type: none"> Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionario, irakasle finko eta Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoentzat. Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoei U3 ikastaroa bakarrik eskainiko zaie. Horrezaz gainera, lehenago txanda bat kontsumitu, HE1 lortu ez eta beste bat egiteko aukera dutenek U2 egin ahal izango dute. 	
OHAR NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> Gehienez, hiru urte eskainiko die Sailak irakasleei HE1 + HE2 lortzeko. Eta Hezkuntza Bereziko irakasle eta lan-legepeko hezitzaileei ere, hiru urte, HE1 + HLEA edo HE2 lortzeko. U2n sartzeko sarrera-azterketa egin behar da. U2 bukatu ondoren HE1eko azterketa egin behar da. U3n sartzeko, HE1 eskuratua izan behar da lehendik. U3 ikastaroan, irakaspraktikak egin behar dira. U3 errepikatzen dutenek ere bai. U3 bukatu ondoren, HE2ko edo HLEAko azterketa egin behar da. 	
LIBERAZIO-AUKERAK	Nork	Liberazio-txandak
	<ul style="list-style-type: none"> Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasle finkoek. 	HE1 eta HE2 lortzeko, guztira 3 urteko liberazioa ematen da: <ul style="list-style-type: none"> 1 urte (HE1) + 2 urte (HE2). 2 urte (HE1) + 1 urte (HE2). 1,5 urte HE1 lortzeko + 1,5 urte HE2 lortzeko.
	<ul style="list-style-type: none"> Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko irakasle finkoek eta lan-legepeko hezitzaile finkoek. 	HE1, HLEA eta HE2 lortzeko, guztira 3 urteko liberazioa ematen da: <ul style="list-style-type: none"> 1 urte (HE1) + 2 urte (HLEA); aukera HE2 lortzeko. 2 urte (HE1) + 1 urte (HLEA). 1 urte (HE1) + 1 urte (HLEA) + 1 urte (HE2). 1,5 urte (HE1) + 1,5 urte (HLEA edo HE2).
	Oh.: liberazio-txandak kontatzean, kontuan hartzen dira irakasle bitarteko garaian egindako txandak eta baita irakasle finko moduan egindakoak ere.	
Noiz eta zenbat ordu	850 ordu inguruko urte osoko ikastaroa: 2014ko irailaren 4tik 2015ko ekainaren 5era	
Non	U2 ikastaroa, HABEk aukeratutako ikasketa-elkarteetan	
	U3 ikastaroa, Bilboko, Gasteizko eta Donostiako IRALEn irakastegietan	

Ohar orokorrak:

2015eko ekainaren 5etik azterketa bukatu dutenek ere ikastetxera itzuli behar dute, nahiz eta ordezkoez han jarraitu.



U2	HE1 lortzeko urte osoko goi-ikastaroa		
	NON	KODEAK	
		Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
	Bilbon	U240	4801
	Donostian	U240	2001
	Gasteizen	U240	0101

U3	HE2 lortzeko urte osoko ikastaroa		
	NON	KODEAK	
		Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
	Bilbon	U340	4801
	Donostian	U340	2001
	Gasteizen	U340	0101



3.1.2 Irakaspraktikak (U3ko ikasketarientzat bakarrik)

Irizpideak

- Ikasketariak D edo B ereduko ikastetxean egingo ditu irakaspraktikak, ahal dela irakasten duen irakas-zikloan eta irakasgaian; eta lanlekua ez duen ikastetxe batean.

Irakaspraktiken helburuak

- Ikasketariari, eskolako benetako egoera komunikatiboan, bere hizkuntza-mailaz eta komunikatzeko gaitasun-mailaz hausnartzeko aukera ematea.
- Eskolak euskaraz lehenengoz emateak sor diezaiokeen segurtasun falta gainditzen laguntzea.
- Ikasmaterial eta esperientzia didaktiko berriak ezagutzea.

Irakaspraktiken zer-nolakoa

- Aurreko guztia lortu ahal izateko, IRALEko ikasketariak ikastetxeko tutoreari lagunduko dio eskola-emankizunetan eta irakaslanari dagokion beste edozein zereginetan (lan-bilerak, material-prestatzea...).
- U3ko ikasketariak 2. hiruilekoan egingo dituzte irakaspraktikak, gutxi gorabehera 90 orduz.

Irakaspraktiketako tutorearen baldintzak

- Hizkuntza-gaitasun egokia izatea: HE2, EGA edo hizkuntza-agiri baliokideren baten jabe izan behar du.
- Euskaraz irakasten gutxienez 2 ikasturteko esperientzia izatea.
- Tutoretzapean ikasketari bakarra izatea.

Tutorearen funtzioak

- Orientazioa, jarraipena eta balioespena egitea.

Irakaspraktiken ebaluazioa

Hiru informazio-iturri hauek erabiliko dira:

- Ikasketariaren autoebaluazioa. Ikasketariak, praktiken bukaeran, autoebaluatzeko fitxa beteko du IRALEko irakastegira itzuli baino lehen. Hala nahi izanez gero, tutorearekin kontrastatuz bete dezake fitxa hori.
- Irakaspraktiketako tutorearen balioespena. Tutoreak txosten bat egingo du, iritzia emateko. Txosten hori bakoitzari dagokion IRALEren irakastegira bidaliko da.
- IRALEko irakasleen balioespena. IRALEko irakaslea gutxienez behin pasatuko da ikastetxetik, eta tutorearekin zein ikasketariarekin izandako elkarriketan oinarrituta egingo du bere balioespena.



3.1.3 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak: HE1, HLEA eta HE2 lortzeko urte erdiko azken ikastaroak.

NORENTZAT	<ul style="list-style-type: none"> • Herri-ikastetxeetako eta ikastetxe pribatuetako irakasle finkoentzat. • Herri ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko irakasle finkoentzat eta lan-legepeko hezitzaile finkoentzat.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • 3000n eta 5000n sartzeko, sarrera-azterketa egin behar da. • 4000n sartzeko, herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile edo irakasle finkoa izan behar da, eta HE1 eskuratua izan. • 3000 bukatu ondoren, HE1eko azterketa egin behar da. • 4000 bukatu ondoren, herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoek HLEAko azterketa egin behar dute. • 5000 bukatu ondoren, HE2ko azterketa egin behar da.
Noiz eta zenbat ordu	475 ordu inguruko urte erdiko ikastaroa: 2015eko urtarrilaren 7tik ekainaren 5era.
Non	3000 eta 4000 ikastaroak, HABEk aukeratutako ikasketa-elkarteetan. 5000 ikastaroa, ahal bada, Bilboko, Gasteizko edo Donostiako IRALeren irakastegietan.

Ohar orokorrak:

2015eko ekainaren 5etik azterketa bukatu dutenek ere ikastetxera itzuli behar dute, nahiz eta ordezkoez han jarraitu.

3.1.4 Adinaren araberako sarbide-baldintzak

- a) U2 ikastaroetan hasten direnek (ez jarraipenezkoek), 2014an 55 urte bete behar dute gehienez.
- b) U3tik hasi nahi dutenek (ez jarraipenezkoek) 57 urte bete behar dute 2014an gehienik.
- c) 4000tik hasi nahi dutenek, 2014an 55 urte bete behar dute gehienez.
- d) 5000tik hasi nahi dutenek, 57 urte bete behar dute 2014an gehienik.

Hortik gorako salbuespenak banan-banan aztertuko dira zein bere batzordean: HINOEBAn (herri-ikastetxeetako irakasleak) edota JARRAIBAn (ikastetxe pribatuetako irakasleak). Ikasketari-nahiak berak eskatu behar du salbuespen-trataera, berariaz eta garaiz (2014/03/31tik 2014/04/11ra doan epean).



3000	HE1 lortzeko urte erdiko azken ikastaroa		
	NON	KODEAK	
		Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
	Bilbon	3020	4801
	Donostian	3020	2001
	Gasteizen	3020	0101

4000	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa		
	NON	KODEAK	
		Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
	Bilbon	4020	4801
	Donostian	4020	2001
	Gasteizen	4020	0101

5000	HE2 lortzeko urte erdiko azken ikastaroa		
	NON	KODEAK	
		Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
	Bilbon	5020	4801
	Donostian	5020	2001
	Gasteizen	5020	0101



3.1.5 Z ikastaroak: HE1 edo HE2 lortzeko liberazio partzialeko ikastaroa

NORENTZAT	Musika-kontserbatorioetako irakasleentzat.
OHAR NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Z ikastaroan sartzeko, sarrera-azterketa egin behar da. • Gehienez, sei Z ikastaro egin daitezke: 0tik hasi eta bi Z ikastaro egin ondoren, U2ra pasatzeko sarrera azterketa egin behar da; lau Z ikastaro egin ondoren, HE1eko azterketa gainditu, eta beste bi Z ikastaro egin daitezke HE2 lortzeko.
Noiz eta zenbat ordu	425 ordu inguruko urte osoko ikastaroa: 2014ko irailaren 4tik 2015eko ekainaren 5era.
Non	HABEk aukeratutako ikasketa-elkarteetan.



3.1.6 Sarrera-azterketa

- Ikasketari-taldeak homogeenak izateko eta finkatutako maila lortu ahal izateko, gutxieneko hizkuntza-ezagueria eskatuko da. Hori bermatzeko, **sarrera-azterketa** egin behar da, kasu hauetan izan ezik: ikastaro bat egiteko liberatuta egon eta hurrengo mailara pasatzeko, edo U3n edo 4000n sartzeko. Izan ere, U3n edo 4000n sartzeko, nahikoa da HE1 izatea (baita izena eman eta gero aterata ere).
- Gutxieneko maila gainditu beharko dute sarrera-azterketan 3000 edo 5000 ikastaroa egin nahi duten ikasketariek.
- Sarrera-notaz gainera, ikastaro-hasierako estimazioa ere kontuan hartu ahal izango da, ikasketaria zein mailatan kokatu erabakitzeke. Txanda hasieran, birkoka litezke ikasketariak. Horretarako prozedura hau da: irakasle-taldeak proposatu eta ikasketariak berak idatzizko adostasuna agertzea. Dena den, azken erabakia zuzendaritza-taldeak hartuko du. Aldaketa horrek ez ditu, txanda-kopuruei eta abarrei dagokienez, ikasketariaren administrazio-baldintzak aldatuko.
- Ikasketari-nahiak sarrera-azterketan adierazitako mailari eutsi behar dio ikastaroa hasi bitartean.
- Maila bat gainditu, eta, urtealdi bat baino gehiago ikastetxean eman ondoren berriro IRALera etorri eta hurrengo maila egin nahi badu norbaitek, sarrera-azterketa egin beharko du.
- Lanean ari den ikastetxeari dagokion lurraldean egingo du azterketa ikasketari-nahiak.

Hona hemen sarrera-azterketa noiz eta non egingo den:

U2 egiteko

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
BILBO	2014/05/15	Artazugoikoko IRALE Artazubidea, 5	16:00
DONOSTIA	2014/05/15	Donostiako IRALE Larratxo pasealekua, 51-53	16:00
GASTEIZ	2014/05/15	Gasteizko IRALE Habana kalea, z/g	16:00

3000 edo 5000 egiteko

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
BILBO	2014/09/18	Artazugoikoko IRALE Artazubidea, 5	16:00
DONOSTIA	2014/09/18	Donostiako IRALE Larratxo pasealekua, 51-53	16:00
GASTEIZ	2014/09/18	Gasteizko IRALE Habana kalea, z/g	16:00



3.2 RIKASTAROAK

NORENTZAT	<ul style="list-style-type: none"> • HE2, EGA edo hizkuntza-agiri baliokide baten jabe diren sare publikoko irakasle funtzionarioentzat eta finkoentzat, nahiz sare pribatuko finkoentzat. • HLEA edo HE2 duten Herri ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoek R300 ikastaroa egin dezakete.
LEHENTASUN OROKORRAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahal delarik, lurralde guztietan R mota guztiak eskaintzeko moduan sailkatuko dira eskabideak. Beraz, norbaitek bi edo hiru R mota diferente eskatu baditu, R mota guztiak osatzeko lehentasuna ezarriko da eskabide horietan: R700>R400>R500>R600>R300 2. Gero horren barruan: <ol style="list-style-type: none"> a) Euskara edo euskaraz irakasten dutenak liberatuko dira lehenik. Gero, gaztelania edo atzerriko hizkuntzaren bat irakasten dutenak. b) Horien barruan, 2014an gehienez 56 urte betetzen dituztenak liberatuko dira. Gero, lekurik balego, 2014an 56 urtetik gora betetzen dituztenak, progresiboki (57, 58, 59...) kupoa amaitu arte. c) Horien barruan, R ikastaro gutxien egin dutenek (0>1>2...) d) Horien barruan, HE2, EGA edo hizkuntza-agiri baliokidea lehenago lortu izana lehenetsiko da.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gehienez hiru R ikastaro (R300, R400, R500, R600 edo R700 artean) egin daitezke. • R ikastaro mota bera ezin da birritan egin. • Ikasturte berean R ikastaro bakarria egin daiteke. • Ikastetxe bakoitzetik txanda berean R ikastaroetara irakasle gehiegi ez liberatzeko, honako muga hauek ezarriko dira: <ol style="list-style-type: none"> a) Hamar gela arteko ikastetxeetan, irakasle bakarria. b) Hamaika gelatik hogeira arteko ikastetxeetan, bi irakasle. c) Hogei gelatik gorako ikastetxeetan, hiru irakasle. • Behin ikastaroa bukatuta, ikasleek IRALeren Kontsulta Zerbitzua (www.irale.hezkuntza.net) erabili ahal izango dute zalantzak argitzeko.



3.2.1. R300: Irakasgaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna sendotzeko ikastaroa

Helburuak	Irakasleek euskaraz irakasteko eta hezitzaileek lanean euskaraz jarduteko duten hizkuntza-gaitasuna hobetzea, sakontzea eta sendotzea.
Edukiak	<p>Ikastaroak bi ardatz izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> Orokorra: hizkuntzari berari zuzenean lotua, komunikazio-gaitasuna hobetzera zuzendua. Lehenengo ardatz honetan, eguneratze-premiei erantzuteko azalpenez gain (Euskaltzaindiaren arauak, morfosintaxi arloko zenbait puntu arazotsu berrikustea, lexiko-sorkuntzarako bideak...), hizkuntza-trebetasunak landuko dira batik bat: era guztietako testuak irakurri, ahozotasuna landu eta azalpen formalak egin, irakasleek beren lanean beharrezkoak izaten dituzten idazkiak idatzi, testuak euskaratu, eta abar. Zehatza: norberaren irakasgaiarekin edo hezkuntza-jarduerarekin zuzenago lotua. Bigarren honetan, ikasketariak beren arloarekin lotura duten lanak egingo dituzte: testuak aztertu, itzulpenak egin, ikasgaiak prestatu, nork bere irakasmateriala zuzendu edo txukundu, eta bestelako proiektuak egin. Material horietako batzuk zabaltzeko proposamena egin lezake HHPK Sailak, ikasketariaren baimena kontuan harturik betiere.
Noiz eta zenbat ordu	<p>365 ordu inguru, 2014-2015ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan:</p> <p>a) 1. txanda: 2014ko irailaren 4tik abenduaren 19ra</p> <p>b) 2. txanda: 2015eko urtarrilaren 7tik martxoaren 27ra</p>
Non	IRALeren bost irakastegietan.

Non	KODEAK	
	Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
Bilbon	R300	4801
Donostian	R300	2001
Gasteizen	R300	0101
Eibarren	R300	2003



3.2.2 R400: Ikasmaterialak euskaraz prestatzeko ikastaro praktikoa

<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz ikasteko edo irakasteko materialak ekoiztea, ikasleen eta curriculumaren ezaugarriei egokituak. Eskolaren gaurkotze-prozesua dela eta, ikasgelak material digitalez hornitzea. Irakasleek ikasmaterialak sortuz edo prestatuz, euskara-maila hobetu eta irakasgaitasuna sendotzea.
<p>Zenbait ezaugarri</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikasketari-nahiak (banaka edo taldeka) egitasmo-txosten labur bat aurkeztu behar du Hezkuntza Ordezkaritzan. Txosten labur horretan argi azaldu behar du zer lan eta nola egingo lukeen. Hezkuntza Ordezkaritzan edota IRALERen web-orrian (www.irale.hezkuntza.net) jaso ahal izango du txosten hori prestatu ahal izateko IRALek beren beregi diseinatutako gida. Beranduen, 2014ko maiatzaren 17an aurkeztu behar du txosten hori. IRALEko irakasle tutoreek ikasketariekin batera egingo dute lan: prestatutako materialak zuzentzen lagunduko diete ikasketariei, eta, horrez gain, ikasmaterialei azken orrazketa egiteaz arduratuko dira. Ikasketariak berak jakin behar du egingo duen lana burutzeko behar dituen baliabide informatikoak erabiltzen. Lana egiteko orduan beste egile batzuen testuak, irudiak, eta abar baliatzeko asmoa izanez gero, ikasketariak berak eskuratu beharko ditu baimenak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hartuko du material hori argitaratzeko ardura.
<p>Lehentasunezko arloak</p>	<p>Euskarazko materialak premiazko diren arloetakoak lehenetsiko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketakoak Batxilergoan zein DBHn euskarazko material gutxi duten irakasgaietakoak. <i>Eskola 2.0</i> programakoak Euskal kulturari lotutako eskola-materialak <p>Ahal delarik, mintegi-proiektuak (eta proiektu hori garatzeko taldeak) lehenetsiko dira.</p>



Lehentasunak	<p>R400erako ikasketariak aukeratzeko orduan, besteak beste, IRALeren balorazio-txostena hartuko da kontuan. Balorazio-txosten horrek honako elementuok jasoko ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 2014-15erako zehaztu diren lehentasuneko arloak. 2014ko apirilaren 14an, beranduenik, emango du Sailak (bere web orrian) arlo horien berri. 2. Ikasketari-nahiek aurkeztutako egitasmo-txostenei buruz egingo den balorazio teknikoa: <ol style="list-style-type: none"> 2.1 Egitasmoaren aplikagarritasuna: irakas-sistemaren curriculumeko beharrei aurrez aurre erantzuten dien ala ez. 2.2 Egitasmoaren egingarritasuna. 2.3 Egitasmoaren izaera: egitasmo hori bakarka edo taldean egitekoa den, txanda bakarrerako egitasmoa den edo proiektio luzeagokoa eta IKTen erabilera indartzen duen ala ez.
Noiz eta zenbat ordu	365 ordu inguru, 2014ko irailaren 4tik abenduaren 19ra.
Non	IRALeren bost irakastegietan.

Non	KODEAK	
	Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
Bilbon	R400	4801
Donostian	R400	2001
Gasteizen	R400	0101
Eibarren	R400	2003



3.2.3 R500: Ahozko komunikazioa lantzeko ikastaroa

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Ahozko gaitasunei dagokienez, ikasleen garapen linguistiko eta akademiko egokia bermatzeko estrategiak eta teknikak garatzea. Hizkuntzaren barneko aniztasunaren berri ematea: aldaerak, erregistroak, ahozko eta idatzizko adierazpideak. Irakasleen euskarazko ahozko gaitasuna indartzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen komunikazio-gaitasuna areagotzeko irakasbideak. Hiztun trebeak sortzeko jarduera-mota posibleak: ahozko aurkezpenak, hitzaldiak, elkarrizketak, eguneroko egoerak. Hizkuntza-aldaerak: aldaera geohistorikoak (euskalkien lekua EAEko irakaskuntzan), soziofuntzionalak, situaziozkoak... Erregistroak: jaso-formal-akademikoak, hurbil-informal-kolokialak, etab. Erregistro bakoitzaren lekua eta aplikazio-bidea eskolan. Ahozko jardunaren eta idatzizkoaren berezitasunak. Ahozko erregistroak berariaz lantzea, eskolari begira.
Noiz eta zenbat ordu	125 ordu inguru, 2015eko urtarrilaren 7tik otsailaren 10era.
Non	IRALERen lau irakastegitan. Bilboko, Gasteizko eta Donostiako IRALERen irakastegietan.

Non	KODEAK	
	Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
Bilbon	R500	4801
Donostian	R500	2001
Gasteizen	R500	0101



3.2.4 R600: Curriculumaren euskal dimentsioa: euskal kulturaren inguruko ikastaroa

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculumaren euskal dimentsioaz jabetzea. • Dimentsio horren oinarri nagusiak ezagutzea. • Euskal dimentsioa plano jeneralean txertatzen saiatzea.
Edukiak	Euskal Literatura, Historia, Geografia, Artea... eta, oro har, lehenengo eta egungo elementu soziokultural propioak lantzea.
Noiz eta zenbat ordu	175 ordu inguru, 2015eko otsailaren 9tik martxoaren 27ra.
Non	IRALERen bost irakastegietan.

Non	KODEAK	
	Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
Bilbon	R600	4801
Donostian	R600	2001
Gasteizen	R600	0101
Eibarren	R600	2003



3.2.5 R700: Ikastetxeetan hizkuntza-gaitasuna garatzeko ikastaroa

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzak curriculum osoan duen garrantziaz jabetzea, eta horrek irakaslanean zer inplikazio dituen hausnartzea. • Ikasketariak materialei eta metodologiari lotutako erabakiak hartzeko irizpideak garatzea, komunikazio-gaitasunaren ikuspegia aintzat hartuta. • Ikasketariak, hizkuntzari dagokionez, beren jardun didaktikoa hobetzeko baliabideak eskuratzea. • Ikasketariak curriculumean hizkuntzarekin egoki lan eginez ikastetxeetan euskara sendotzeko baliabideak garatzea.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> • Arloetako curriculumak eta hizkuntza-trebetasunak integartzeko estrategiak eta baliabideak. • Hizkuntza-trebetasunak lantzeko irizpideak, estrategiak eta baliabide metodologikoak. • Irakaskuntzaren esparruko testu-generoak. • Hizkuntza-gaitasunaren alorreko marko teorikoa, gaur egungo irakaskuntzan. • Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek irakaskuntzarako eskaintzen dituzten baliabideak.
Lehentasunak	Lehentasuna izango dute LMHko eta DBHko irakasleek.
Noiz eta zenbat ordu	125 ordu inguru, 2014ko irailaren 4tik urriaren 10era.
Non	Bilboko, Gasteizko eta Donostiako IRALeren irakastegietan.

Non	KODEAK	
	Ikastaro-kodeak	Eskualde-kodeak
Bilbon	R700	4801
Donostian	R700	2001
Gasteizen	R700	0101



4. IRAKASTORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

4.1 HE1, HLEA, HE2, EGA EDO HIZKUNTZA-AGIRI BALIOKIDE BATERA ARTEKO IKASTAROAK

HE2, EGA EDO HIZKUNTZA-AGIRI BALIOKIDE BATERA ARTEKO IKASTAROAK				
Ikastaro mota	Azalpena	Noiz	Barnetegian BAI/EZ	Ikastaro-kodea
A	HE1erainoko euskalduntze-ikastaroa	Uztailean	EZ	A070
			BAI	A071
		Abuztuan	EZ	A080
			BAI	A081
		Irailan	EZ	A090
			BAI	A091
		1. hiruhilekoan		A010
		2. hiruhilekoan		A020
3. hiruhilekoan		A030		
Ikasturte osoan		A040		
E	HE2 edo EGArainoko euskalduntze- edo alfabetatze-ikastaroa	Uztailean	EZ	E070
			BAI	E071
		Abuztuan	EZ	E080
			BAI	E081
		Irailan	EZ	E090
			BAI	E091
		1. hiruhilekoan		E010
		2. hiruhilekoan		E020
3. hiruhilekoan		E030		
Ikasturte osoan		E040		
3300*	HE1erako ikastaro berezia			3310
4300*	HLEArako ikastaro berezia			4310
5300*	HE2rako ikastaro berezia			5310
N*	HE1 eta HE2rako ikastaro berezia			N040

Oharrak:

- *Ikastaro horiek ikasturtean zehar emango dira bakarrik.
- Eskualde-kodea zein den jakiteko, ikus [6.1 atala](#).

**BERARIAZKO OHARRAK****4.1.1 3300, 4300 eta 5300 ikastaroak**

NORENTZAT	Liberazio-aukera guztiak agortuak dituztenentzat.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • 450 eskola-ordu bete behar dira HE-en deialdi itxian parte hartzeko. • Etengabeko ebaluazioa ohiko moduan hartuko da kontuan. IRALEko irakastegietako ikasketaburuaren edo jarraipen-arduradunaren zeregina izango da etengabeko ebaluazioa egitea. • 3300 HE1 eskuratzeko ikastaro berezia da. • 4300 HLEA eskuratzeko ikastaro berezia da. • 5300 HE2 eskuratzeko ikastaro berezia da.
Non	Ikasketariak berak aukeratutako ikasketa-elkartean.



4.1.2. N ikastaroak

<p style="text-align: center;">NORENTZAT</p>	<p>Liberazio-aukerarik ez dutenentzat. Konkrétuki, honako hautentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 0-3 urte bitarteko haurrekin diharduten irakasle edo hezitzaile finkoentzat, baimendutako haur-eskola publiko eta pribatuetan. • Ikastetxe pribatuetakoa Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonal finkoarentzat (AZP). • Irakaskuntza pribatuko Hezkuntza Bereziko irakasle finkoentzat.
<p style="text-align: center;">OHAR NAGUSIAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 450 eskola-ordu bete behar dira HE-en deialdi itxian parte hartzeko. Egunean hiru orduko ikastaroa da, eta ikasturte osoko iraupena du. • Hiru ordu horiek ez dute zertan denak presentzialak izan: irakurketa eta idazketa lantzeko saio gidatuak ere hartuko dira kontuan eskatutako ordu-kopurua betetzeko. • Etengabeko ebaluazioa ohiko moduan hartuko da kontuan. IRALEKO irakastegietako ikasketaburuaren edo jarraipen-arduradunaren zeregina izango da etengabeko ebaluazioa egitea.
<p style="text-align: center;">Non</p>	<p>Ikasketariak berak aukeratutako ikasketa-elkartean.</p>



4.2. H, F, I EDO Q IKASTAROAK

Ikastaro mota	Azalpena	Noiz	Ikastaro-kodea
H100	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna, hitzez edo idatziz. Euskaltzaindiaren batasun-arauak ortografian, lexikoan eta gramatikan. Irakurketa ozen zuzena, hitzen ebakera eta hitzarteen doinuera zaindua.	1. hiruhilekoan	H110
		2. hiruhilekoan	H120
		3. hiruhilekoan	H130
		Ikasturte osoan	H140
H200	Goi-mailako hizkuntza-gaitasun praktikoa lantzea: eguneroko lan-esparruan euskara (ahoz zein idatziz) zuzen eta egoki erabiltzea.	1. hiruhilekoan	H210
		2. hiruhilekoan	H220
		3. hiruhilekoan	H230
		Ikasturte osoan	H240
H300	Itzulpen-tekniken ezagutze teorikoa eta gaitasun praktikoa. Ikastaroaren alde praktikoa batez ere Bigarren hezkuntzako eskola-liburuen itzulpen-lanean oinarrituko da.	1. hiruhilekoan	H310
		2. hiruhilekoan	H320
		3. hiruhilekoan	H330
		Ikasturte osoan	H340
H401	Mintzamena, oro har.	1. hiruhilekoan	H411
		2. hiruhilekoan	H421
		3. hiruhilekoan	H431
		Ikasturte osoan	H441
H402	Lagunarteko hizkera.	1. hiruhilekoan	H412
		2. hiruhilekoan	H422
		3. hiruhilekoan	H432
		Ikasturte osoan	H442
H403	Jendaurreko hizkera jaso.	1. hiruhilekoan	H413
		2. hiruhilekoan	H423
		3. hiruhilekoan	H433
		Ikasturte osoan	H443
H404	Euskal literatura.	1. hiruhilekoan	H414
		2. hiruhilekoan	H424
		3. hiruhilekoan	H434
		Ikasturte osoan	H444
H405	Ipuingintza. Kontalaritza.	1. hiruhilekoan	H415
		2. hiruhilekoan	H425
		3. hiruhilekoan	H435
		Ikasturte osoan	H445
H406	Euskal antzerkia. Kanta. Bertsolaritza. Dantza, Irratia. Euskal jolasak.	1. hiruhilekoan	H416
		2. hiruhilekoan	H426
		3. hiruhilekoan	H436
		Ikasturte osoan	H446
H407	Curriculumaren euskal dimentsioa; euskal kulturaren gaineko ikastaroa.	1. hiruhilekoan	H417
		2. hiruhilekoan	H427
		3. hiruhilekoan	H437
		Ikasturte osoan	H447
H408	Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak.	1. hiruhilekoan	H418
		2. hiruhilekoan	H428
		3. hiruhilekoan	H438
		Ikasturte osoan	H448
H409	Soziolinguistika: etxe eta eskola bidezko hizkuntza-transmisioa.	1. hiruhilekoan	H419
		2. hiruhilekoan	H429
		3. hiruhilekoan	H439
		Ikasturte osoan	H449



H410	Soziolinguistika: <i>Taller d'Espai Lingüístic Personal</i> (TELP).	1. hiruhilekoan	H410
		2. hiruhilekoan	H420
		3. hiruhilekoan	H430
		Ikasturte osoan	H440
H411	Aniztasuna, Immigrazioa eta Hizkuntzak: eleaniztasunaren ikuspegitik, hizkuntzen arteko elkarbizitza aztertzea, lantzea eta garatzea.	1. hiruhilekoan	H41A
		2. hiruhilekoan	H42A
		3. hiruhilekoan	H43A
		Ikasturte osoan	H44A
H500	Informatika euskaraz.	1. hiruhilekoan	H510
		2. hiruhilekoan	H520
		3. hiruhilekoan	H530
		Ikasturte osoan	H540
F100	Giza eta gizarte-zientzien alorreko terminologia teknikoa eta adierazpide bereziak lantzea. Norberaren jakintzagai zehatzari dagokion alfabetatze teknikoa.	1. hiruhilekoan	F110
		2. hiruhilekoan	F120
		3. hiruhilekoan	F130
		Ikasturte osoan	F140
F200	Zientzia-tekniken alorreko terminologia teknikoa eta adierazpide bereziak lantzea. Norberaren jakintzagai zehatzari dagokion alfabetatze teknikoa.	1. hiruhilekoan	F210
		2. hiruhilekoan	F220
		3. hiruhilekoan	F230
		Ikasturte osoan	F240
I	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa.	1. hiruhilekoan	I010
		2. hiruhilekoan	I020
		3. hiruhilekoan	I030
		Ikasturte osoan	I040
Q	Euskalkiak: haien osaera eta testu hautatuak.	1. hiruhilekoan	Q010
		2. hiruhilekoan	Q020
		3. hiruhilekoan	Q030
		Ikasturte osoan	Q040

Oharra: Eskualde-kodea zein den jakiteko, ikus [6.1 atala](#).



5. IKASTAROETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA JARDUNBIDEA

5.1. OHAR OROKORRAK

- Eskabideak noiz eta nola bete:

- Noiz: 2014/03/31tik 2014/04/11ra (egun biak barne).
- Nola: online. Horretarako, jo helbide honetara:

www.irakasle.net>irakaslegune>Administrazio-izapideak>IRALE ikastaroak 2014-2015.

Online ezin baduzu egin, jo Hezkuntza Ordezkaritzara (Euskara Atala)

- Sailak ez du onartuko EAEko irakaskuntza-sisteman lanean ari ez direnen eskabiderik; 2013-2014 ikasturtean gutxienez egun batez lan egin behar izan du.

Epez kanpoko eskabideak

- Irakastordu barneko ikastaroetan, IRALEk ez du epez kanpoko eskabiderik onartuko.
- Irakastorduz kanpoko ikastaroetan, epez kanpoko eskabidea onartzeko, ondoko baldintza hauetako bat bete behar du ikasketariak:
 - a) Eskabidea egiten duen egunean, gehienez ere bi hilabete eramatea lanean, eta lan hori haren lehenengo irakaslan izatea.
 - b) Lanean EAetik kanpora aritu izan denean ere, irakaspostua eskuratzen duenetik bi hilabeteko epean egitea eskabidea, nahiz eta lehenengo irakaslan ez izan.
 - c) Gaixotasun-bajan, eszedentzian edo antzeko arrazoiren batengatik lanean aritu izan ez bada, irakaslanera itzultzen denetik eskabidea bi hilabeteko epean egitea.
 - d) Ikastaro hauetan, ikasturte eta txanda hasieran, berariazko eskabideak onartu ahal izaten dira hezkuntza-ordezkaritzetan.

Kasu horiez gain, IRALEk beretzat gordetzen du epez kanpoko eskabide bereziak onartzeko ahalmena.

Hizkuntzaren aldetiko sarbide-baldintzak

Ikastaldeak homogeneous izateko, honela jokatu da:

- Irakastordu barneko ikastaroetan sartzeko (U2, Z, 3000 eta 5000), [sarrera-azterketa](#) egin behar da.
- Irakastorduz kanpoko ikastaroetan, ikasketa-elkarteak ezarriko ditu sarbide-baldintzak.



Ordainketa-baldintzak

- Ikastaroak doan eskainiko zaizkie herri-ikastetxe eta ikastetxe pribatuetako ikasketari guztiei.
- Udan barnetegira (Lazkaora edo Zornotzara) joaten den ikasketariak egoitza-gastuaren erdia ordainduko du gehienez, eta herena, gutxienez.
- Ordainketa-baldintzen mugak eta salbuespenak Aurkezpen Txosten honetako [6.2 atalean](#) daude zehaztuta.
- Eskolako ordezkotzaren gastuak, azkenik, honela ordainduko dira:
 - a) Herri-ikastetxeen kasuan, Sailak ordezkotza-gastuaren % 100 ordainduko du.
 - b) Ikastetxe pribatuen kasuan, irakasmaila bakoitzeko ordezkapen-kostuaren zati bat (gutxienez % 80) ordainduko du Sailak. Xehetasunak, Sailak EHAAn berariaz egiten duen deialdian zehazten dira.



5.2. IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROETARAKO OHARRAK

Derrigorrezkotasuna

Behin betiko zerrendan onartua izan den ikasketari orok parte hartu behar du eskaini zaion ikastaroan.

Ikastaroetan parte hartzea liberazio-aukeren mende dago (liberazio-aukerak ikastaroen tauletan zehaztu dira). Azken erabakia Sailari dagokio.

Uko egiteko eskaera

Behin-behineko zerrendan agertzen den ikasketariak ikusten badu eskatutako txanda ezin izango duela egin, **lau eguneko epean** idatziz horren berri eman beharko dio IRALeri.

Liberazioa eskatu eta, arrazoi sendorik gabe, ukoa epez kanpo egiten duen ikasketariak hurrengo hiru urteetan ez du liberatzeko lehentasunik izango.

Liberatuen behin betiko zerrendak erreserbako gehigarria izango du. Ikastaroren bat egiteko aukeratua izan den norbaitek huts egiten badu, erreserba horretatik ordezkaturiko da haren hutsunea.

Toki- eta txanda-aukera

- Sailak, ahal den neurrian, errespetatu egingo du ikasketarigaiek ikastaroa egiteko aukeratu duten lekua eta txanda. Hala ere, ikastaro bat baino gehiago eskatuz gero, Sailak erabakiko du zein aukeratu.
- Talde osoak egin ahal izateko, ikasketariak lekuz aldatzeko eskubidea du Sailak.



5.3. IRAKASTORDUZ KANPOKO IKASTAROETARAKO OHARRAK

Matrikula-fitxa lortzea

Ikasketari-nahiari gogoko duen ikasketa-elkartean izena emateko matrikula-fitxa irakasle.net-en bidez helaraziko dio Sailak, **2014ko ekainaren 6an** beranduenik, udako ikastaroen kasuan, eta **2014ko abuztuaren 29an** beranduenik, irakastorduz kanpoko ikastaroen kasuan. Egun horretarako matrikula-fitxa jasotzen ez duenak Ordezkaritzako Euskara Atalera jo beharko du.

Lehengoz gain, beste ikastaro bat eskatzea

Eskabide-orrian eskatutako ikastaroaz gain beste ikastaroren bat egin nahi denean, ikastaro horretarako matrikula-fitxa eskatu behar da Ordezkaritzako Euskara Atalean. Ikasketari-nahiak horretarako baldintzak ondo betetzen baditu, IRALE ahaleginduko da eskabide berriari irtenbidea ematen; halere, berandu izateagatik irtenbiderik eman ezin bazaio, IRALEk ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko.

Ikasketa-elkartea aukeratzea

Ikasketari-nahiari, hautatu duen ikastaroaren arabera, eskueran dituen ikasketa-elkarteen zerrenda helaraziko zaio matrikula-fitxarekin batera, eta ikasketa-elkarte horietariko bat aukeratu beharko du.

Ikastaroa ikastetxean bertan

Ikasketari-nahiek ikastaroa ikastetxean bertan egitea eska diezaiokete ikasketa-elkarteari. Horretarako, honako irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- Taldeak gutxieneko ikasketari kopurua izatea.
- Eskola-emankizunei dagokienez, IRALEn ezarritako prezioaren goi-muga bere horretan mantentzea (araz ezarritako joan-etorrien gastua erantsi ahal zaio prezio horri).
- Ikastaroa emateko ordutegi berezirik bada, ikasketa-elkarteak ordutegi berezi hori aparteko kostu-igoerarik gabe onartzea.
- Interesatuak eurek ikastaroa emateko prest dagoen ikasketa-elkarte egokia bilatzea.

Matrikulatzea

- Ikasketari-nahi bakoitzak IRALEk emandako matrikula-fitxa aurkeztuko du aukeratu duen ikasketa-elkartean; onartua izanez gero, bertan matrikulaturik geldituko da.
- Matrikula-fitxako datu inprimatuak ezin dira eskuz aldatu.
- Ikasketa-elkarteen matrikula-epeak errespetatzeaz gainera, ikastaroa hasi eta gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da matrikulatze-lana.

6. OHAR JAKINGARRIAK

6.1 ESKUALDE-KODEA NOLA AUKERATU

Ikasketari-nahiak ikastaro bat eskatzerakoan, IRALEk honako hau jakin nahi du: zein eskualdetan egin nahiago duen ikastaro hori. IRALEk erabiltzen duen eskualde-banaketa, kodeekin eta eskualde bakoitzeko herri nagusiekin batera, alboko orrialdean dago. Herri baten izena ez agertzeak, dena den, ez du esan nahi han ikastarorik egingo ez denik.

Irakastorduz kanpoko ikastaroen kasuan, ikasketari-nahiak aukera beza gehien komeni zaion eskualdea, eta hori apunta beza eskabide-azalpenean; irakastordu barneko ikastaroenean, aldiz, kasuan kasuko ikastaroa deskribatzen duen orrian bertan agertzen diren eskualdeetariko bat aukeratu behar du. Ezer jartzen ez badu, IRALEk berak ikasketari-nahiak emandako bestelako datuen arabera kodetuko du.

Ikasketari-nahiaren gogoko eskualdean ikastaro-eskaintzarik ez badago, inguruko zenbait eskualdetakoa eskainiko dio IRALEk. EAE osoan aukerak urri direnean, bestalde, eskaintza guztiak zerrendatuko ditu. Edozein modutan ere, eskaintako aukerak desagokiak badira, ikasketariak ikastaro-eskaintzen zerrenda oso-osoak kontsultatu ahal izango du Ordezkaritzan, beste aukera bat egin ahal izateko.





LURRALDEA	ESKUALDEA	IZENA	EREMUA
ARABA	0101	GASTEIZ	Añana, Armiñón, Arraia-Maeztu, Bastida, Berantevilla, Bernedo Erriberagoitia, Bilar, Eltziego, Ekora, Erriberabeitia, Gasteiz Hegoa, Gaubea, Guardia, Harana, Iruña Oka, Kanpezu, Kripan, Kuartango, Lagran, Lantaron, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda, Navaridas, Oion, Urizaharra, Samaniego, Villabuena, Zanbrana.
	0102	GASTEIZ	Agurain, Aiara, Amurrio, Aramaio, Arratzu-Ubarrundia, Asparrena, Artziniega, Barrundia, Burgu, Donemiliaga, Dulantzi, Gasteiz Iparra, Iruraitz-Gauna, Laudio, Legutio, Okondo, Urkabustaiz, Zalduondo, Zigoitia, Zuia.
BIZKAIA	4801	BILBAO (ABANDO)	Alonsotegi, Bilbo (Abando, Basurtu-Zorrotza, Deustu, Errekalde).
	4802	BILBAO (TXURDINAGA)	Bilbo (Begoña, Ibaiondo, Otxarkoaga-Txurdinaga, Uribarri).
	4803	SESTAO	Portugalete, Santurtzi, Sestao.
	4804	BARAKALDO	Barakaldo.
	4805	ORTUELLA	Abanto, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Muskiz, Ortuella, Sopuerta, Trapagaran, Turtzios, Zalla, Zierbena.
	4806	BASAURI-GALDAKAO	Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Artea, Basauri, Bedia, Dima, Etxebarri, Galdakao, Igorre, Lemoa, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio.
	4807	GETXO	Arrieta, Bakio, Barrika, Berango, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gorniz, Laukiniz, Lemoiz, Maruri, Meñaka, Morga, Mungia, Plentzia, Sopela, Urduliz.
	4808	LEIOA	Derio, Erandio, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio.
	4809	DURANGO	Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Otxandio, Ubide, Zaldibar.
	4810	GERNIKA	Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Aulestia, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Gaategiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Mundaka, Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Narbaniz, Ondarroa, Sukarrieta, Ziortza-Bolibar.



GIPUZKOA	2001	DONOSTIA	Astigarraga, Donostia.
	2002	IRUN	Errenteria, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun, Pasaia.
	2003	EIBAR	Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñate, Soraluze.
	2004	ORDIZIA	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga.
	2005	ZARAUTZ	Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa, Zumaia.
	2006	LASARTE-ORIA	Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Billabona, Elduain, Gaztelu, Hernani, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lasarte-Oria, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Urnieta, Usurbil, Zizurkil.



6.2 AMI (APROBETXAMENDU MAILAREN IKURRA)

Zer da?

Ikasketariaren aprobetxamendu-maila islatzen duen adierazlea da AMI; ehunekotan adierazi ohi da. Ikastaro bakoitzaren amaieran, IRALEn parte hartu duten ikasketa-elkarteek ikasketariaren aprobetxamendu-orria bidaliko dute Sailera. Sailak aprobetxamendu hori hartuko du oinarri eskola-emankizunen gastua ordaintzeko: ikasketariak gutxieneko baldintzak ongi bete baditu, hurrengo ikastaroan ere eskola-emankizunen gastu osoa ordainduko dio; haren aprobetxamendua bestelakoa izango balitz, eskola-emankizunen gastuaren erdia bakarrik ordainduko lioke, eta, ikasketariak berriro ere gutxiegi aprobetxatuko balu, IRALEk ez lioke hurrengoan ezer ordainduko.

Asistentzia

IRALEk asistentzia-taula hau aplikatuko du aprobetxamendu-maila zehazteko:

Ikastaroa	Gutxieneko asistentzia
Irakastordu barnekoa	% 100
Udakoa	% 80
Urtean zeharreko irakastorduz kanpokoa	% 75

- **% 100:** IRALEk eskola-emankizunen gastuen % 100 ordaintzen du. Barnetegian, horrez gain, IRALEk egoitza-kostuen %50 ordaintzen du. Hots, barnetegietan IRALEk ikastaroaren kostu osoaren 2/3 ordainduko du.
- **% 50:** IRALEk eskola-emankizunen gastuen % 50 ordaintzen du. Barnetegian, horrez gain, IRALEk egoitza-kostuen % 25 ordaintzen du. Hots, barnetegietan IRALEk ikastaroaren kostu osoaren 1/3 ordainduko du.
- **% 0:** IRALEk ez du ezer ordaintzen. Dena den, ikasketariari tasa hori eman bazaio, nahitaezkoa da hurrengo matrikula egiterakoan matrikula-fitxaz baliatzea, IRALEk hurrengo batean ikastaro horren emaitza positiboak ikasketari horren alde erabili ahal izan ditzan.

Justifikatutako hutsegiteek ez dute eraginik aprobetxamendu-orrian.

6.3. BAJA-ALDIA LUZEA IZANIK, TXANDA EZABATZEKO AUKERA

Halakoetan, ikasketariak txanda ezabatzea eska dezake. Horretarako, bere lurraldeko Pedagogi Berritzatzeko buruari idatzi behar dio, eta idazki horri baja-aldiaren frogagiriak erantsi. Hala ere, baja-aldi luze bategatik liberazio-aldia ezabatu ahal izateko, muga hauek daude:

- Baja-aldia medikuak ziurtatua eta Osasun Ikuskaritzak ontzat emana izan behar du.
- Txanda ezabatzeko eskea, baja-aldia gertatzen den ikasturtean bertan egin beharko da, betiere txanda-amaierako ebaluazioa egin eta HE1 edo HE2 azterketara aurkeztu aurretik (euskalduntze-ikastaroetan).
- U2 edo U3n, baja-aldia 60-109 ikastegun artekoa bada, urte-erdiko liberazio-aldia egiteko aukera emango zaio ikasketariari. Baja-aldia 110 ikastegunetik gorakoa bada, txanda ezabatu egingo da, eta ikastaroa berriz egiteko aukera emango zaio.
- R300, R400 eta urte erdiko ikastaroei dagokienez, gutxienez 30 ikasteguneko baja-aldia osatu behar da txanda ezabatzeko.
- R500 eta R700 ikastaroetan, 10 ikasteguneko baja-aldia osatu behar da txanda ezabatzeko
- R600 ikastaroan, 14 ikasteguneko baja-aldia osatu behar da txanda ezabatzeko.
- Txanda behin bakarrik ezaba daiteke. Dena den, salbuespenik gerta liteke, eta, halakoetan, medikuaren ziurtagiria eskatuko da.
- Aldez aurretik begiz jo daitezkeen baja-aldien kasuan (amatasun-kasu gehienak, hilabete batzuk lehenago iragarritako ebakuntza edo tratamendua, eta abar) ez da txandarik ezabatuko. Hala ere, aldez aurretik ezin kalkula daitekeenean (Gizarte Segurantzak, itxarote-zerrendak direla medio, bat-batean deitzen duenean, adopzio-kasuetan, eta abar), txanda ezabatu egin ahal izango da.
- Txanda ezabatzeko baldintza guztiak bete arren txanda amaieran dagokion maila edo hizkuntza-eskakizuna gainditzen duenari, Sailak ez dio txanda ezabatuko.
- Txanda ezabatzeak liberatuta jarraitzeko lehentasuna galtzea dakar: txanda ezabatzen duenak ikasketari-nahi berriaren tratamendua jasoko du.



6.4 BESTE LANBIDE BATZUETAKOEN PARTE-HARTZEA

- Aurkezpen Txosten honetan irakasleen edota ikasketarien aipamena egitean, **Laguntza eta Ikuskaritza Zerbitzuetako** langileak ere kontuan hartzen dira, berariaz besterik esaten ez bada. Hala ere, liberatzekotan, haien zuzendarien baimena behar dute.
- Bilboko, Gasteizko eta Donostiako **musika-kontserbatorioetako irakasleek** irakastordu barneko eta irakastorduz kanpoko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute. Aukera horiekin batera, Z ikastaroa eskainiko zaie. Irakastordu barneko ikastaroen kasuan, HE1 edo HE2 azterketara deialdi itxian aurkeztu beharko dute.
- Autonomia Erkidegoko **espetxeetan irakaslanean diharduten irakasleek** IRALEn parte hartzeko aukera izango dute. 1999-07-09ko Errege Dekretuak irakasle-talde horrentzat araututako egoera administratiboaren arabera aplikatuko da aukera hori.
- **Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programan (HLPP) irakaslanean dihardutenek**, irakastorduz kanpoko ikastaroetan bakarrik parte hartu ahal izango dute IRALEn. Irakastordu barneko ikastaroren bat egin nahi izanez gero, non eta irakastegia publikoa edo hitzartua ez den, Sailak ez du liberatzen den irakaslearen ordezkotza-gastua bere gain hartuko.
- **0-3 urte bitarteko haurrekin diharduten irakasleek eta hezitzaileek**, baimendutako haur-eskola publiko eta pribatuetakoek, IRALEn udako eta lanorduz kanpoko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute oro har. Aukera horrekin batera N ikastaroa eskainiko zaie finkoei, eta HE1 edo HE2 azterketara deialdi itxian aurkezteko aukera izango dute.
- **Musika-eskola pribatu eta munizipaletako irakasleek**, arte plastikoa eta diseinua irakasten duten irakastegi onetsitakoek bezala, IRALEn udako eta lanorduz kanpoko ikastaroetan bakarrik parte hartu ahal izango dute.
- Ikastetxe pribatuetako pertsonal finko ez-irakasleak (**AZPak**) eta ikastetxe pribatuetako **Hezkuntza Bereziko hezitzaileek** IRALEn udako eta irakastorduz kanpoko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute. Aukera horrekin batera, N ikastaroa eskainiko zaie finkoei eta, hartarako baldintzak betetzen badituzte, HE1 edo HE2 azterketara deialdi itxian aurkezteko aukera izango dute.
- **Haur-eskolen Partzuergoko langileek** beren hitzarmenean begiz jotako moduan parte hartu ahal izango dute IRALEn.

**7. HELBIDEAK ETA TELEFONOAK****Arabako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala****Telefonoak:** (945) 017251 / 017246**Faxa:** (945) 017201**E-posta:** huisarep3@ej-gv.es**Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala****Telefonoak:** (94) 4031099 / 4031101**Faxa:** (94) 4031093 / 4031163**E-posta:** huisbez2@ej-gv.es**Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala****Telefonoa:** (943) 022873 / 022861**Faxa:** (943) 022851**E-posta:** huisg006@ej-gv.es**Gasteizko IRALE****Telefonoa:** (945) 274400**Faxa:** (945) 253835**E-posta:** 010146aa@hezkuntza.net**Bilboko Dolaretxeko IRALE****Telefonoa:** (94) 4129646**Faxa:** (94) 4598740**E-posta:** iraledola@euskalnet.net**Bilboko Artazugoikoko IRALE****Telefonoak:** (94) 4104677 / 4104462**Faxa:** (94) 4104693**E-posta:** 015048aa@hezkuntza.net**Donostiako IRALE****Telefonoa:** (943) 404610**Faxa:** (943) 397835**E-posta:** 012233aa@hezkuntza.net**Eibarko IRALE****Telefonoa:** (943) 120100**E-posta:** 013360aa@hezkuntza.netIRALEren webgunea: <http://www.irale.hezkuntza.net/web/guest>

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunea:

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara>